

# **BRT MENDITARRAK 25 GETXO 20**

Erritmu handiko partidua izan zen larunbatekoa, partidu oso berdindua. Baztandarren etxeko bigarren norgehiagoka zen, eta lehenengo partidua galdu ostean, hontakoan ezin zuten huts egin baztandarrek. Eta lan handia egin eta gero, garaipena eskuratu zuten.

Partidua joan etorriaz beteta egon zen, baloia ongi mugitu zuten bi taldeek baina Bizkaitarrak izan ziren markagailua estreinatu zutenak, 18.minutuan 0-5 jarri zuten markagailuan eta segida eman zioten, izan ere, 22.minutuan beste entsegu bat egin zuten 0-10. Baztandarrek ordea, ez zuten amore eman eta hortik gutxira erreakzionatu zuten, markagailuan hurbilduz 7-10. Emaitza honekin joan ziren atsedenaldira.

Baztandarrek lanean jarraitu zuten, zigor kolpe bat lortuz, Aitor Adinek 3 puntuak lortu zituen. 10-10. Hala ere, Bizkaitarrek tinko jarraitu zuten eta 48. Minutuan hirugarren entseguaz lortu zuten. 10-15. Hori eta gero, puntuak baztandarrentzat izan ziren, izan ere, 59.minutuan Aitor Adinek beste 3 puntu lortu zituen 13-15. Baztandarrek tinko jarraitu zuten eta hortik gutxira markagailuari vuelta eman zioten, 20-15. Getxok garaipena eskuratu nahi zuen eta hala erakutsi zuen, beste entsegu bat lortuz. 20-20

Baina azkenean, Nafarrak izan ziren garaipena eskuratu zutenak, azkeneko jokaldian Unai Mugiro arizkundarrak lortu zuen taldearen azkeneko entseguaz. 25-20 Baztandarrentzat.

## **CAS**

Fue un partido de mucho ritmo el del sábado, muy igualado. Era el segundo encuentro como locales para los baztandarras, y tras perder el primer partido, en este no podían fallar. Después de mucho trabajo, se llevaron la victoria.

El partido estuvo lleno de idas y venidas, los dos equipos movieron bien el balón, pero fueron los vizcaínos los que estrenaron el marcador, en el minuto 18 pusieron el 0-5 en el marcador y le dieron continuidad, ya que

en el minuto 22 hicieron otro ensayo 0-10. Los baztandarras, sin embargo, no se rindieron y reaccionaron poco después, acercándose en el marcador 7-10. Con este resultado se fueron al descanso.

Los baztandarras siguieron trabajando, consiguiendo un golpe de castigo, Aitor Adin logró los 3 puntos. 10-10. Sin embargo, los vizcaínos se mantuvieron firmes y en el 48 lograron el tercer ensayo. 10-15. Después de eso, los puntos fueron para los baztandarras, ya que en el minuto 59 Aitor Adin sumó otros 3 puntos por 13-15. Los baztandarras siguieron firmes y al poco tiempo dieron la vuelta al marcador, 20-15. El Getxo quería hacerse con la victoria y así lo demostró, logrando un nuevo ensayo. 20-20

Pero finalmente, fueron los navarros los que se llevaron la victoria, en la última jugada el arizkundarra Unai Mugiro logró el último ensayo del equipo. 25-20 para los baztandarras.